

**Ebazpena: R13/2023**

**Espedientea: 1/2015**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 17an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

## **ERABAKIA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita TVOSL zergapekoak 2011ko martxoaren 8tik aurrera duen egoitza fiskala zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 1/2015 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- TVOSL sozietatea 1995ean eratu zen, eta egoitza fiskala Irunen (Gipuzkoa) du.

Bere bazkide bakarra Herbehereetako KHBV erakundea da, zeinen bazkide bakarra GAMV da, Herbehereetan duena egoitza.

2.- 2000ko uztailaren 21ean, sozietatea Kataluniara lekualdatu zen, eta, han, Bartzelonan izan du egoitza, eta 2009ko abenduaren 23tik, Gironan.

2011ko martxoan, egoitza soziala Gipuzkoara aldatu zuen, eta 2012ko maiatzaren 23an 036 eredu aurkeztu zuen, egoitza fiskala aldatzekoa, 2011ko martxoaren 8tik aurrerako ondoreekin.

**3.-** GFAk egoitza fiskalaren aldaketa egiaztatu zuen 2014an, eta horren ondorio dira zerga-garrantzia duten inguruabar hauek:

a.- Gipuzkoako bulegora egindako bisitan, EVWek (TVOSLren ahalduna) erantzun zien, eta adierazi zuen TPri alokatuta zegoela.

lido horretan, GFaren amaierako alegazioen idazkiak adierazten du Gipuzkoako bulegoa 2013ko urtarrilaren 1etik alokatuta dagoela GEOri, eta, beraz, ezinezkoa dela lehenago enpresaren lanak egiteko bulego bat izatea.

b.- Langile batek adierazi zuen bulegoan enpresaren trafikoa kontrolatzen dutela, ahaldunik egon gabe, kudeaketa eta zuzendaritza administratzaile bakarrak egiten dituelako Herbehereetatik, eta kobrantzak eta ordainketak Gironako aholkularitzak kudeatzen dituelako.

c.- Gironako aholkularitzako buruak, EVWek, 2000. urtetik TVOSLren ahalduna eta Gironan egoitza duenak, adierazi zuen kontratazioa, kudeaketa eta zuzendaritza administratzaile bakarrak egiten dituela, eta Gironako aholkularitzaren bidez jarduten duela, bertan baitaude kontabilitate- eta zerga-artxiboak.

d.- 2011n 16 langile zeuden Gipuzkoan eta 18 Gironan, nahiz eta 2012an eta 2013an lurralde erkideko langileen ia erdiak zeuden Gipuzkoan.

e.- Eragiketak egiteko erabiltzen den banku-kontua Popular bankuaren Gironako sukurtsal batean dago irekita.

f.- 347 ereduaren arabera, hornitzaileak Gipuzkoatik kanpokoak dira.

g.- Bartzelonako logistika-zentro baten helbidea eta Bartzelonako telefono bat agertzen diren bi faktura aztertu dira.

h.- 2013ko urteko kontuak baino ez dira aurkeztu Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan.

i.- EVWeri emandako ahala sozietatearen ohiko kudeaketa garatzeko behar diren ahalmen guztiak lortzen dituen ahal orokorra da.

2014ko irailaren 30eko idazkiaren bidez, GFAk egoitza fiskala aldatzeko proposamena helarazi zion ZAEARI.

**4.-** ZAEAk, halaber, zergapekoaren egoitza fiskala egiaztatu zuen, eta, amaitzeko, 2014ko abenduaren 11n idatziz ezetsi zuen aldaketa-proposamena, zerga-garrantzia duten honako inguruabar hauen babesean:

a.- Ahaldunak hau adierazi zuen:

- Bezeroei egindako fakturak Gipuzkoatik jaulkitzen dira.
- Bezeroei eta hornitzaileei Gipuzkoatik ematen zaie arreta.
- Sozietatearen korrespondentzia Gipuzkoan jasotzen da.

- Gipuzkoatik kamioien trafikoa kontrolatzen da eta merkataritzalanak egiten dira, hala nola bezeroak bilatzea kamioiak kargatuta itzul daitezen.
- Horretarako, 4 langile dituzte: 2 administrari, 1 bulegoburu, 1 trafikoburu.
- Administratzaile bakarrak Espainian izaten da aldizka, Gipuzkoako bulegoan, eta han hartzen ditu enpresaren erabakiak.
- Gipuzkoako gestoria kontabilitateaz, zerga-aitorpenez, nominez eta gizarte-aseguruez soilik arduratzen da.
- Gainerako langileak, Gipuzkoako 4ak izan ezik, gidariak dira.
- Urteko kontuak Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan gordailutzen dira.
- Enpresak 6 kamioi ditu jabetzan eta 3 leasingean, eta Gipuzkoan daude inskribatuta.

b.- Gipuzkoako egoitzan enpresa identifikatzen duen kanpoko plaka bat dago.

**5.-** 2015eko urtarrilaren 19an, GFAk gatazka bat planteatu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean TVOSLek 2011ko martxoaren 8tik aurrera duen egoitza fiskalaz; 1/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetu da, prozedura arruntaren bidez, eta hasierako eta amaierako alegazioen izapideak eman dira, hurrenez hurren, hilabeteko eperako.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

### 2.- Zergapekoaren egoitza fiskala.

Sozietatearen administratzaileak Herbehereetan du egoitza.

Erakundearen ahalduak GFari adierazi zion administratzaileak bere egoitzatik egiten dituela kudeaketa- eta zuzendaritza-lanak, eta ZAEari adierazi zion administratzailea noizean behin Gipuzkoara joaten dela lan hori egitera.

Baten edo bestearen frogarik ez dagoenez, zuhur onar liteke bizi den lekuan gutxienez, administratzaile-lanak egiten dituela.

Bestalde, EVWek, Gironan egoitza duenak, eta bertan duen aholkularitzaren administratzaile bakarra denak, ahal orokor zabal bat du, zeinaren bidez pentsatzekoa baita kudeatzaile-administratzaile bati dagozkion erabaki guztiak har ditzakeela.

Ez dago egiaztatuta sozietateak Gipuzkoan duen bulegoa 2011n alokatuta zegoenik, kontratua 2013ko urtarrilaren 1ekoa baita eta GFAko funtzionarioen bisita 2014an egin baitzen.

Nolanahi ere, langilearen adierazpenen arabera, ez da erakundearen kontratazio orokorrarekin lotutako lanik egiten; aitzitik, ahaldunak GFari eta ZAEari adierazitakoak, oraingoan ere, ez datoz bat, eta, beraz, ez dute balio handiagorik. Egia esan, aurkeztutako faktura bakarrek Bartzelonako helbide eta telefono bat aipatzen dute, eta badirudi Gipuzkoako zentroko langile batek ere ez duela ahalmenik administraziokoa ez den lan bat egiteko.

Bestalde, egiaztatuta dago Gironako bulegoan kontabilitatea, zerga-aitorpenak, nominak eta gizarte-aseguruak egiten direla. Litekeena da kontratazioa TVOSLren ahaldunak gauzatzea, zeina, aldi berean, aurreko lanak kudeatzen dituen aholkularitzako administratzailea baita.

Hori, era berean, koherentea da hornitzaileek lurralde erkidean kokatuta egotearekin.

Era berean, koherentea da sozietatearen jarduera gehiena lurralde erkidean garatzearekin, horregatik daude-eta langile gehienak lurralde horretan, eta horregatik mantentzen da kotizazio-kontu nagusi bat.

Ibilgetuak, hondar-irizpidea izateaz gain, garrantzirik gabea da, etengabe zirkulazioan dauden kamioietara mugatzen baita.

Aurreko froga guztia batera baloratuta, ondoriozta daiteke zergapekoaren egoitza fiskala lurralde erkidean zegoela.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Adieraztea TVOSLren egoitza fiskala 2011ko martxoaren 8tik lurralde erkidean zegoela.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta TVOSLri.